

2024KO ZEZEILAREN 2A

# begoñazpi ale berezia



## BALOREAK BULTZATUZ, **ETORKIZUNA ERAIKIZ**

ZIRIKINA ETA DEITUAK PROGRAMAK, BEGOÑAZPI  
IKASTOLAKO ALKARBIZITZA EREDUA



proponemos diferentes juegos...

## ZIRIKINA ETA DEITUAK PROGRAMAK

# Alkarbizitza hobetzeko eta pertsona gisa hazteko ikaskideen arteko ekimenak

**Zelangoa da eraikitzen gagozan gizartea? Zelango etorkizuna gura dogu?**

Gaur egun, hezkuntza munduan funtsezkoa da ikasleen zein ikasle- irakasleen arteko **alkarbizitza egokia izatea**. Ikaste- irakaste prozesua egokia izateko, Ikastolak alkarbizitza eredu garatu behar izan dau. Hau, neurri handi baten, ikasleen parte-hartze zuzenean datza. Beraz, edozein arlotan, konpetentzia bat garatzeko biderik zuzenena, parte-hartze zuzena izango da.



**“ Guk gidari deritxegun ikasleek, irakasleak bitarteko, ikasle gazteagoei gainditu bako ikasgaietan aurrera egiten lagunduko deuse. ”**

**Azken baten, ikasleek euren giza-baloreak beste batzuen zerbitzura jarriko dabez. ”**

Ikasleen parte-hartze zuzena sustatu, bultzatu zein bermatzeko bidea, Ikasketa Zerbitzu programak oinarritzat hartzea izan da. Ikasketa Zerbitzu programa honek **benetako beharrizan bati erantzuteko helburua dau** eta horretarako ikasleak, curriculumaren bidez ikasitako arloren bateko jarduera solidario bat eginez, beste ikasle batzuen esku jartzean datza.

Aurten, ikasleen arteko alkarbizitza hobetzeko Ikasketa Zerbitzu programa bi erabiliko doguz. Bata, DBH4ko ikasleek aurrera eroango daben ZIRIKIÑA izeneko programa.



READ MORE

